

## BATX2\_Enpresaren\_Ekonomia\_PROGRAMAZIO LABURPENA

Irakaslea | IÑAKI SETOAIN | Maila | BATXILER 2 | Ikasturtea | 2021-22

### IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Enpresaren Ekonomiak enpresaren barnean arazoei ekonomikoari ematen zaizkien erantzunak aztertzen eta analizatzen ditu; haren xedea da aurrera egitea enpresen egungo antolaketa eta administrazioaren analisisan, ikuspegi oso eta eguneratu batetik.

Enpresaren gaineko ezagutza oinarriko urratsa da ekonomiaren funtzionamenduaren osotasuna ulertzeko, enpresen barnean gertatzen dena ingurune ekonomiko zabalagoan gertatzen dena bezain funtsezkoa baita. Irakasgai honetan gisa honetako kontuak jorratuko dira: enpresen existitzeko arrazoiak, antolaketa eta funtzionamendu motak eta erabakiak hartzean eragiten duten faktoreak.

Enpresaren eginkizuna da merkaturako ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea, lehia eta gaitasun finantzarioko egoeretan, horretarako hautaturik

Zuzenbideak aipatzen dituen forma juridikoetariko bat. Enpresaren eginkizun horrek posible egiten du gizaki bakoitzak bateratu ahal izatea lanaren espezializazioa, batetik, eta bere bere premia ugari eta askotarikoen ahetasuna, bestetik. Ingurune aldakor eta desberdinetan, malgutasuna eta eraldaketa teknologiko, legezko edo bestelakoetara egokitzeko gaitasuna funtsezkoak ageri dira, une bakoitzeko konponbiderik hoberenak hautatzeko. Enpresen jardueraren garapenak etika eta erantzukizun soziala izan behar ditu gidari, emaitza hutsen zer-en gaitetik zertarako jarrita.

Enpresa eragile funtsezkoa da hazkunde ekonomikorako, berrikuntzarako, enplegurako eta gizarte integraziorako. Ezinbestekoa da kultura eta pentsamolde enpresariala lantzea eta sustatzea, eta haren barnean sormena eta berritzeko gogoia erabiltzea eta haztea, gogoeta pertsonalen lanketa eta erabaki arrazoiak hartzea sustatzea, eta akatsa aurrerabide eta ikasbidetzat hartzea

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

### OINARRIZKO GAITASUNAK

### UNITATEAK

Gaitasunak eraginkortasunez eskuratzeko eta curriculumean benetan txertatzeko, ikasleen gaitasun bat baino gehiago aldi berean lantzeko aukera emanen dieten ikaskuntza jarduera integratuak diseinatuko dira, ikasia errealitateari aplikatu diezaioten.

Landuko diren gaitasunak legeak jasotzen dituenak dira; Hizkuntza komunikazioa, matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarriko gaitasunak, gaitasun digitala, ikasten ikastea, gaitasun sozial eta zibikoak, ekimena eta ekintzailtza, kontzientzia eta adierazpen kulturalak.

Informazio gehiagorako: <https://bon.navarra.es/eu/buletina/-/sumario/2015/127/> (3.orrialdea, 5.

artikulua)

## ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

## EDUKIAK

### BATX CURRICULUMA

**I blokea. Enpresa.:** 1 eta 2. unitate didaktikoak

**II blokea: Enpresaren garapena.:** 3. Unitate didaktikoa

**III blokea: Enpresaren antolaketa eta zuzendaritza.:** 11, 12 eta 13 Unitate didaktikoak

**IV blokea: Ekoizpen funtzioa:** 8 eta 9. Unitate didaktikoa

**V blokea: Enpresaren merkataritza funtzioa:** 10 Unitate didaktikoa

**VI blokea: Informazioa enpresan:** 4. eta 5. Unitate didaktikoa

**VII blokea: Finantza funtzioa:** 6 eta 7. Unitate didaktikoa

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

### BATX CURRICULUMA

## UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Ord.	Unitateak	Ord.	Unitateak
3	1.- Enpresa gure gizartean	5	5.- Analisi ekonomiko-finantzariorako tresnak	9	5.- Analisi ekonomiko-finantzariorako tresnak
5	2.- Enpresaburua eta enpresa motak	5	11.- Enpresaren zuzendaritza	7	8.- Produkzio funtzioa
8	3.- Enpresaren garapena	4	12.- Enpresaren antolakuntza	9	9.- Ekoizpen kudeaketa
14	4.- Enpresaren egitura ekonomiko-finantzariora	4	13.- Giza baliabideen zuzendaritza		
3	5.- Analisi ekonomiko-finantzariorako tresnak	8	6.- Inbertsioa enpresan	11	10.- Enpresaren merkataritza funtzioa edo marketin
		7	7.- Enpresaren finantzaketa		

## METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Gai bakoitzaren **aurkezpena eta sarrera irakasleak** azalduko du; Materiala **klasean irakurri** eta aztertuko da. Horretarako ikasleek **ozenki** eta txandaka irakurriko dute. Horrek gainontzekoen **arreta** eskatuko du. Dudak denon aurrean aurkeztuko dira

- Enpresaren Ekonomia irakasle taldeak prestatutako eta itzulitako apunte komunak eta ariketak.
- Bideoak, egunkariak, aldizkariak, internet...
- Ikasgaiko classroom-a

- Moodle plataforman gela birtuala
<b>EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA</b>
<b>KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK</b>
<p>Ebaluazio bakoitzeko nota kalkulatzeko pauso bat azterketen batez bestekoa egitea da. Azterketaren batean 3 baino gutxiago ateratzen bada, derrigorrez berreskuratu beharko da. 3 eta 4,5ren arteko nota ateratzen bada ebaluazioa gainditzeko batez bestekoa 5 edo gehiago izan behar da. Gertatu ezean zatia berreskuratu beharko da.</p> <p><b>Portzentajeak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Azterketen puntuazioak notaren %90-a suposatuko du eta batez bestekoa eginez kalkulatu da.</li> <li>- Moodle plataformako galdetegiak egiteak eta lortzen den notak, klasean ikasgaia lantzeko eta euskaraz hitz egiteko erakusten den jarrera eta lanak eta etxerako lanek notaren %10-a emanen dute. Jarrera ikasleei emanen zaien errubrikaren bidez baloratuko da. Ikasgaia gainditzeko, derrigorrezkoa izanen da atal honetan behintzat %5a eskuratzea.</li> </ul> <p><b>TRESNAK EDO BALIABIDEAK</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.- Ikasle bakoitzak egiten duen <b>eguneroko lan eta jarreraren balorazioa</b> irakasleak egiten duen <b>etengabeko behaketa</b></li> <li>2.- <b>Azterketak</b>, beti ere, landutako kontzeptuei eta prozedurei lotuta</li> <li>3.- Mugikorrek institutuan debekatuta daudenez, irakasleak jaso behar izanez gero puntu bat jaitziko dio ikasleari ebaluazioan</li> </ol> <p><b>ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK</b></p> <p><b>Froga guztiek 6 puntu balio duen zati teoriko eta 4 puntu balio duen zati praktikoa izanen dute, lehenengoak izan ezik. Kasu honetan teoriak pisu handiagoa izanen du praktikako ariketa bakarra sartzen baita.</b></p> <p><b>USE frogan bezala, teoriak bi zati izanen ditu: Lehenengoa test moduan planteatuko da. Teoriaren nota kalkulatzeko, gaizki egiten diren test galderek azterketaren puntuazio osoan kentzen dutela kontuan izan behar da. Erantzun oker bakoitzak, galderak balio duen erdia kenduko du. Galdera erantzuten ez bada, ez du ez gehitu ezta kendu ere egingo. Bigarren zatian alde zehaztu diren kontzeptu batzuen definizioak eskatuko dira. Teoriaren nota bi zatietan atera denaren batuketaren bidez kalkulatu da.</b></p> <p><b>Borobiltzea:</b></p> <p><b>Ebaluazioko</b> nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.</li> <li>- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatu 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.</li> </ul> <p><b>Ikasturte bukaerako</b> nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.</p> <p><b>ERREKUPERAZIO SISTEMA</b></p> <p>Ebaluazio bakoitzari dagozkion frogak gainditu ezean, asti izanez gero, notak eman baino lehenago errekupeatzeko aukera emanen da. Astirik ez balego berreskuratzeko azterketa hurrengo ebaluaketan egingo litzateke. Berreskurapen azterketetan gaizki egiten den test galdera bakoitzak, soilik bere balioaren herena kenduko du.</p> <p>Maiatzean gainditu gabeko zatien azken berreskurapen azterketa egiteko aukera izanen da. Dena gaindituta dutenek nota borobiltzeko azterketa bat egiteko aukera izanen dute. Honek ez du nota jaisteko eragina izanen.</p> <p><b>Nahikotasuna gainditzen ez duten ikasleek Ez-ohiko azterketa egin behar izango dute eta bere balioa, lortzen den notaren gainean %100-a izango da.</b></p>

## KANPOKO EBALUAZIOA

Dagokien ikasgaien kasuan soilik

OHARRA: Aurreko guztia malgutasunez jarraituko den hasierako plangintza bat da. Kurtsoan zehar aldaketak egiteko beharra ikusten bada, egingo dira